

Azkoitiko Udalaren Beka

Azkoitiko Udalak, Matadeiko eraikinak 100 urte betetzen dituela abiapuntu hartuta, herriaren azken ehun urteotako historiaren hainbat alderdi jaso, herriaren bilakaera azaldu eta bide batez gaur egungo egoera aztertzeke asmoz, beka bat sortu du aurtengorako, 6.000 euroko diru-laguntza izango duena.

Lanak bidaltzeko epea irekita dago martxoaren 31ra arte.

Bekaldiaren oinarriak ondorengoak:

1. Gure herriaren azken 100 urteetako historia jasotzea du xede beka honek, beti ere Matadeiko eraikina abiapuntu hartuta, eta beraz, eraikin horren inguruan ardaztutako azterketa eta kontakizun historikoa egiteko proiektuak aurkez litezke, horretarako egileak egoki iritzitako edozein forma erabiliz (adibidez: argazkiak, planoak, kronikak, elkarrizketak, biografiak, eta abar), eta azken ehun urteotako Azkoitiko pertsona, talde, gertakari eta mugimenduak kontuan hartuta.

2. Lanak jatorrizkoa eta euskaraz sortua izan beharko du, aurrez argitaratu nahiz saritu gabea.

3. Proiektuak aztertzean, bi ezaugarri hartuko dira batez ere kontuan: testuaren beraren kalitatea eta proiektuaren interesa.

4. Parte-hartzaile bakoitzak ondorengoak aurkeztu beharko ditu, lau aldakitan:

a) Egilearen curriculum laburra, orri batean, argitara emandako lanak aipatuz, baita harremanetan jartzeko helbide eta abarrak ere.

b) Idatzi nahi duen lanaren azalpena, 3-6 orri bitarteko luzerakoa, egoki iritzitako ezaugarriak zehaztuz, hala nola, gaia, egitura, iturriak, metodologia, aurreikusitako luzera, estiloa...

c) Idazlanaren lagina edo erakusgarria, 10-15 orrialde bitartekoa.

5. Proiektuak, 2014ko martxoaren 31ra arte bidal litezke helbide honetara:

Matadeixek 100 urte
Azkoitiko Udaletxea
20720 Azkoitia

6. Imanol Mujikak, Amagoia Gurrutzagak eta Jose Luis Otamendik, jasotako proiektu guztiak aztertu eta haien arteko bat izendatuko du irabazle 2014ko apirila amaitu baino lehen. Aurkeztutako lanek behar adinako kalitaterik ez dutela iritziz gero, beka eman gabe utz dezakete epaimahaikoek.

7. Bekako diru-kopuruaren erdia, izendatu bezain laster jasoko du irabazleak, eta beste erdia, idazlan amaitua entregatu eta epaimahaikoek onespena emandakoan, lehen erdia jasotzen duenetik urtebetera hain zuzen ere.

8. Irabazleak, izendapena jaso eta urtebeteko epea izango du gehienez, idazlan amaitua antolatzaileei helarazteko. Bitarte horretan egileak hasierako proiektua aldatu nahi izango balu, epaimahaikoei jakinarazi beharko die aldaketaren berri eta haien onespena jaso beharko du.

9. Diru-laguntza jasotako idazlanaren jabetza, egilearena izango da. Alabaina, lan horrek ezin izango du beste inongo beka edo saririk jaso, ez laguntzaren aurretik ez ondotik, argitaratu osteko sariak izan ezik. Azkoitiko Udalak argitaratuko du idazlana, eta egile-eskubideak ohiko moduan ordainduko dizkio egileari.

10. Beka-deialdi honetan parte hartzeak, bertako oinarriak ontzat ematea dakar. Horien ulermenean zalantzarik balego, epaimahaikoei dagokie erabakitzea, eta, epaimahaikoek egin ezean, antolatzaileek erabakiko dute.